

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARTZINIEGAKO UDALA

#### Behin betiko onestea Artziniegan Eguneko Arretarako Zentroa jartzeko xehetasun azterketa

Udalbatzak, 2019ko otsailaren 7an egindako ohiko bilkuran, honako hau erabaki zuen:

Alkateak, martxoaren 4ko 42/2018 Dekretuaren bidez, hasierako onespena eman zion SR-1 plan partzialaren zehaztapenak eta aurreikuspenak egokitzeari buruzko xehetasun azterketari, Ubaltorre kalean dagoen 4 poligonoko 799 katastro lurzatiko erabilerak eta eraikinak berrantolatzeko, zeina abuztuaren 1eko 630/1997 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen behin betiko. Horiek horrela, hogeit egunez egon da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratuta (2018ko martxoaren 14ko ALHAO, 31. zk.), 2018ko azaroaren 9ko Diario de Noticias de Alava egunkarian, eta udaletxeko iragarki taulan.

Halaber, zuzenean jakinarazi zitzairen xehetasun azterketak bere mende hartzen duen eremuaren jabeei eta zuzenean eragindako gainerako interesdunei.

Proiektua jendaurrean egon den aldian ez da alegaziorik aurkeztu.

Legez ezarritako izapideak egin eta gero, eta Idazkaritzaren 2019ko urtarrilaren 31ko txostena ikusita, osoko bilkurak honako erabaki hau hartu du 2019ko urtarrilaren 16ko Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta.

#### ERABAKIA

LEHENENGOA. Behin betiko onestea xehetasun azterketaren proiektua, zeinak SR-1 plan partzialaren zehaztapen eta aurreikuspenei eragiten baitie, Ubaltorre kalean dagoen 4 poligonoko 799 katastro lurzatiko erabilerak eta eraikinak berrantolatzeko (plan partziala abuztuaren 1eko 630/1997 Foru Aginduaren bidez onetsi zen), eta horrela, gizarte ekipamendua ezartzeko eta behar den azalera lortzeko Eguneko Arretarako Landa Zentro bat eraiki ahal izateko.

BIGARRENA. Behin betiko onespeneren erabakia ALHAOn argitaratzea.

HIRUGARRENA. Erabaki hau jakinaraztea jabeei eta xehetasun azterketak zuzenean eragiten dien gainerako interesdunei. Halaber, hirigintza arloan eskumena duen foru organoari jakinaraziko zaio.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea erabaki honetarako behar den agiri oro sinatzeko.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Artziniega, 2019ko martxoaren 14a

*Alkatea*

**IÑIGO GÓMEZ UNZUETA**